

NEBA-ARREBEN ARTEKO HARREMANA

LIBURUAREN FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Neba-arrebak!

Idazlea: Rocio Bonilla

Argitaletxea: Algar

Urtea: 2018

Hizkuntza: euskara



IRAKURKETA GIDA DIDAKTIKOA

Gaia: Neba-arreben arteko harreman osasuntsua.

Helburuak

- Garapen emozionala eta soziala sustatzea.
- Neba-arreben arteko errespetua eta bizikidetza indartzea, eta baita elkarren arteko estimua ere.

Gomendatutako adina: 4-6 urte

Liburua irakurri baino lehen...

1.- *Neba-arrebak!* liburuari buruz hitz egin dezagun.

Album ilustratu hau oso berezia da; izan ere, egunerokotasunekoa eta, askotan, maneiatzeko zaila den gaia lantzeaz gain (anai-arreben arteko harremana), harreman beraren bi ikuspuntuak erakusten ditu. Horrela, anai-arreba bakoitzaren azalean jar gaitezke, kasu honetan zaharrenaren eta gazteenaren larrian, eta uler dezakegu, harreman guztietan bezala, bakoitzak bere esperientziaren arabera bizi duela. Gainera, enpatia lantzeraz gonbidatzen gaitu, eta alde ona, eta ez bakarri beste pertsonarengandik molestatzen gaituena, ikusteak duen garrantzia ulertzera.

Liburua irakurri aurretik, zuen seme-alabarekin pertsona orok bizitzan zehar dituen harremanei buruz hitz egin ezazue. Erakuts diezazkiozue, ezagutzen dituen adibideen bidez, haien arteko ezberdintasunak; eta gehitu itzazue oraindik erabat ezagutzen ez dituen harreman horiek. Azkenean, anai-arrebei buruz hitz egingo duzue, baina ez bakarrik zuen seme-alabek beren artean duten harremanari buruz, baizik eta azal diezazkiozue ere nolakoa zen (eta orainaldian nolakoa den ere) zuen harremana haien izeba-osabekin (beti ere zuen familia-egoera hori bada).

Jarraian, hitz egin gida didaktiko honetan landuko dugun liburuari buruz: azala, duen berezitasuna, pertsonaiak... Hainbat galdera egin ditzakezue, irakurtzera animatzeko.

Azal urdina:

- Nortzuk agertzen dira liburuaren estalkiaren alde honetan? Nolakoak dira?
- Zaharrena esaten ari da bere anaia tximino bat dela. Benetako tximua dela uste duzu?
- Begira nagusiaren aurpegia. Zer uste duzu ari dela pentsatzen? Orduan, nola sentitzen da, zure ustez?
- Begiratu tximinoari. Zertan ari da? Nola uste duzu sentitzen ari dela?



Azal horia:

- Nortzuk agertzen dira liburuaren estalkiaren beste aldean? Nolakoak dira? Ezagutzen al dituzu? Nortzuk dira?
- Mutikoa tximino bat al da oraindik? Zergatik uste duzu jada ez dela tximino bat?
- Zer da bere arreba? Zergatik uste duzu orain errinozero bat dela?
- Begiratu pertsonaien aurpegiei. Nola uste duzu sentitzen direla?



Liburua irakurtzen duzuen bitartean...

1.- Gomendio batzuk:

Hasteko, liburu hau irakurtzeko hiru modu daudela esango dizuegu. Azal horitik hasita irakur dezakezue, eta, amaitzean, azal urdinetik irakurri, orrialdeen ordenari jarraituz. Beste aukera bat da modu berean irakurtzea, baina azal urdinarekin hasi eta gero horia irakurtzea.

Hona hemen aurkezten dizuegun azken aukera: istorio bakoitza alderatu dezakezue, txandaka irakurritz. Horretarako, azal urdinaren lehen orrialdetik hastea gomendatzen dizuegu, azal horiaren lehenengo orrira pasatzea, eta gero urdinaren bigarren orrira...

Gida hau lantzeko, azal urdinetik hasiko gara, orrialdeen ordenari jarraituz; baina aurkezten dizkizuegun galderak eta jarduerak gustukoen duzuen ordenan landu ditzakezue. Aipatutakoaz aparte, haien beharrei egokitutako edozein gaiaren inguruan galdetzeko aprobetxa dezakezue, gidan aurkezten den gaiarekin lotura ez badu ere.

2.- Orriz orri:

- **Azal urdina**



Galdera batzuk:

- “Ez dut anaia maite”. Esaten duena egia dela uste al duzu? Zure ustez, zergatik esaten du ez duela maite?
- Zuk zure neba/arreba/ahizpa/anaia maite al duzu? Nola erakusten ohi diozu maite duzula?

- Liburuan bere neba txikia tximu batekin alderatzen du. Zergatik uste duzu hori egiten duela?
- Zure neba/arreba/ahizpa/anaia animalia batekin alderatu behar bazenu, zein aukeratuko zenuke? Zergatik? Eta zein animaliarekin alderatuko zenuke zure burua? Zergatik?



Galdera batzuk:

- Bere neba txikiak egiten dituen zer gauzetaz kexatzen da liburuaren arreba nagusiak? Zure ustez, nola sentitzen dira orri hauetan eta zergatik?
- Anaia/ahizpa/neba/arreba txikia izanda: Zein gauza egiten dituzu zure neba-arreba nagusia/k gogaitzen dituenak/dituztenak?
- Anaia/ahizpa/neba/arreba nagusia izanda: Zure neba-arreba txikiak/ek egiten dituen/dituzten zein gauza gogaitzen zaituzte?
- Arreba nagusiaren ikuspuntutik, zein ezberdintasun ikusten dituzu bi neba-arreba hauen izaeren artean? Zeinen antza duzu zuk?
- Liburuan agertzen diren gela guztiak ikusi. Lekuz kanpo dagoen objekturik ikusten al duzu?



Galdera batzuk:

- Nola sentitzen da nagusia bere neba txikia berarekin ez dagoenean? Zergatik uste duzu horrela sentitzen dela?
- Nola sentitzen zara zu zure neba/anaia/ahizpa/arreba zurekin ez dagoenean? Zergatik uste duzu modu horretan sentitzen zarela?
- Gustatzen zaizkion zeintzuk gauza aipatzen ditu liburuan arreba nagusiak bere neba txikiari buruz?
- Zure anaia/neba/arreba/ahizpa-ren zeintzuk gauza gustatzen zaizkizu zuri? Horiek berari/haiei esateko ohitura al duzu? Noizean behin horiek aipatzera animatzen zaitugu!

Jarduera:

Dituzun hiru gauza on aipatu.

Zure anaiak/nebak/ahizpak/arrebak dituen hiru gauza on aipatu.



Galdera batzuk:

- Nola uste duzu sentitzen dela arreba nagusia orain hiru izanda? Zergatik uste duzu horrela sentitzen dela?
- Nola sentitzen zara zu orain neba/arreba/anaia/ahizpa berri bat duzula? / Nola sentituko zinateke zu orain neba/arreba/anaia/ahizpa berri bat izango bazenu? Zergatik?
- Bere neba/ahizpa berria maiteko duela uste al duzu? Zein jarduera eta jolas egin ahal dituzte orain hiru direla?

- **Azal horia**



Galdera batzuk:

- Anaia txikiak ere ez duela bere arreba maite esaten du. Egia dela uste al duzu? Zergatik uste duzu esaten duela?
- Liburuaren atal honetan arreba nagusia errinozero batekin konparatzen da eta anaia txikia jadanik ez da tximua. Zergatik uste duzu horrela dela?



Galdera batzuk:

- Aurreko orrialdeetan anaia txikiak bere arrebarengatik kexatzen da. Zer kontatzen du?
- Zure ustez, nola sentitzen dira bi pertsonaiak aurreko orrialdeetan?
- Anaia/ahizpa/neba/arreba txikia izanda: Zure neba-arreba nagusiak/ek egiten dituen/dituzten zein gauza gogaitzen zaituzte?
- Anaia/ahizpa/neba/arreba nagusia izanda: Zein gauza egiten dituzu zure neba-arreba txikia/k gogaitzen dituenak/dituztenak?



Galdera batzuk:

- Zer gustatzen zaio neba txikiari bere arreba nagusiaz? Zeintzuk jarduera egiten dituzte elkarrekin?
- Zeintzuk jarduera egiten dituzue elkarrekin? Nola sentitzen zarete jarduera horiek elkarrekin egiten dituzuenean?
- Noizbait, jarduera horiek egitean, zuen artean haserretu al zarete? Haserretu bazarete ere, jarduera horiek elkarrekin egiten jarraituko nahi zenuke?



Galdera batzuk:

- Nola uste duzu sentitzen dela neba txikia orain hiru izanda? Zergatik uste duzu horrela sentitzen dela? Kontuan izan orain etxeko ertaina dela.
- Bere anaia/arreba berria maiteko duela uste al duzu? Zein jarduera eta jolas egin ahal dituzte elkarrekin? Txikiarekin nagusiarekin bezala borrokatuko dela uste al duzu? Zergatik?
- Esan hiru anaia-arreba izatearen onuraren bat.

Liburua irakurri ostean...

1.- Hausnarketa

- Liburuaren bi ataletan bi neba-arrebek gauza bera esaten dute, ez dutela bere neba/arreba maite. Orain liburua irakurri duzula, zergatik uste duzu esaten dutela hori? Batzuetan borroka egiten badute ere, elkar maite dutela uste al duzu?
- Zer ikasi duzu liburu hau irakurriz?

2.- Istorio sortzaileak

Asmatuak zein zuen familia-historian oinarrituak izan, ipuinak asmatzeak eta liburuak sortzeak familia-batasuna indartzen lagun dezake, irakurketak bezain beste.

Aprobetxatu argazki zaharrak erakusteko eta senideen “abenturak” kontatzeko: aiton-amonen familia-kideen argazkiak, txikitako zuen zein zuen neba-arrebenak (haien osaba-izeba), zuen seme-alaben jaiotzean ateratakoak...

3.- Zuri esker...

Jarduera hau familiaren esker onak jasotzeko dituen eguneroko bat sortzean datza. Egunero gutxienez 5 minutu bilduta, une onak gogoratuko dituzue. Familiako kide bakoitzak gehien gustatu zaiona aukeratuko du, eta egunero senide bati eskertzeko moduko zerbait aipatu. Komentatu ondoren, une horiek egunerokoan idatzi edo marraztuko dituzue, eta argazkiak gehitu ahal izango dituzue.

Horrela, familia-lotura indartu eta elkarrekiko balioespena sustatuko duzue, besteen ezaugarri positiboak aintzat hartuta.

4.-. Jolasak

Jolasa, librea zein planifikatua izanda, elkarlana, elkar estimatzea eta anai-arreba gisa duten harremana ulertzen ikasteko balio dezake. Horretarako, jolasen zerrenda bat sortzea proposatu ahal diezue, denbora elkarrekin zelan pasa bururatzen ez zaienerako. Jardueren zerrenda txiki bat ere uzten dizuegu.

- Rolak

Hainbat gai eta pertsonaia proposatuz, modu praktiko eta dibertigarrian ikasiko dute besteen lekuan jartzen, eta, aldi berean, komunikatzeko eta arazoak konpontzeko trebetasunak garatuko dituzte.

- Artistak

Beren gaitasun artistiko eta sortzaileak indartuko dituzten eskulanen, pinturen, horma-irudien, abestien eta abarren bidez, anai-arreben arteko lotura indartzen duten bitartean. Amaieran, museo bat sortu ahal izango dute etxean, sarrerak sortu eta bisita gidatuak antolatu lagun eta senideentzat.

- Elkarlaneko mahai jolasak

Helburu bera izanik, lehia-jokoa alde batera utziko duzue talde-lanari bide emateko. Horiekin, mahai-jokoak, *scape room*-ak edo etxetik kanpoko jolasak bezalako jarduerak lortzeko planifikazioa eta trebetasunen bilaketa landuko duzue, horietan bakoitzak bere onena eman dezan.

- Agurrak

Anima itzazue aho- zein gorputz-hizkuntza erabiliz haien arteko agurrak sortzera, elkartu eta banatzen diren bakoitzean agur berezi bat izan dezaten.

GAIA LANTZEKO BESTE LIBURU BATZUK



- Kai y Emma. Un cumpleaños emocionante. Penguin, 2022
- Hermanos (Ariel Andrés Almada). Cuento de Luz, 2021
- La sirena y los gigantes (Catarina Sobral). SM, 2015

* Liburu guztiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean eskuragarri daude.